

BAZTANGO POPULAZIOAREN ANALISI DERMATOGLIFIKOA

M. ISABEL ARRIETA, ENRIQUE GONZALEZ, GERARDO PASTOR, M. ANGELES IBARRONDO, CARLOS M. LOSTAO

Biologi Departamentua, Zientzi Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, P.K.644, Bilbo.

Summary


Dermatoglyphics is a very useful tool to study and compare populations from a genetic point of view. Research on dermatoglyphics is continuous, and so many populations have been described up to now. This paper deals with the dermatoglyphics of Baztan (a Pyrenean valley), which is also compared with those of some other populations.

SARRERA

Populazioak aztertzeko modu onenetarikoan artean dermatoglyphoen du genetikak, datozen arrazoiengatik: alde batetik, haien ezaugarri asko heredatu egiten dira, eta bestetik, guztiz egonkorak izaten

dira, errialdiaren zazpigarren hila-betean osoki itxuratua izan geroztik; beraz, inguruneak ezin du dermatoglyphoen gainean eragin sasoi hori jaso ondoren.

"Ezaugarri dermatoglyphikoen (zeintzuek, poligenikoki kontrolatuak



eta ez-adaptatiboak bide direnez, jaio osteko aldaketarik jasaten ez bait dute) abantail morfologiko argiak edukitzen dituzte antropometria eta serologiaren gain, giza populazioen arteko erlazio zahar eta oinarrikoagoak azaltzean" (NEWMAN, 1960). FROELICH & GILES (1981) eta FRIEDLAENDER (1975) autoreen lanak azterturik, NEWMAN-en esana egiaztatu egin dute JANTZ & CHOPRA-k (1983).

Hori dela eta, mundu osoan zehar populazio askoren dermatoglifoak ikertu egin dira eta egiten ari. Idazki honetan, Baztango herriaren berri ematen da, eta aldi berean, beste populazio batzuekiko gonbaraketa.

MATERIALA ETA METODOAK

Lan honetan aurkezten diren datuak, Baztango 92 gizon eta 66 emakume antzaz osasuntsuengandik hartuak dira. Halaber, jende hauen lau aitona-amonak Baztangoak ziren.

Hatzamarren irudiak lau motatan sailkatu ditugu, DUMMINS & MIDLO-en (1961) lanaren arabera: arkuak, aletxa ulnarrak, aletxa erradialak eta txirimolak (ikus 1. irudia).

IRUDI DIGITALEN MAIZTASUNAK

1. eta 2. tauleetan agertzen dira, gizon eta emakumeei dagozkienez.

Arkuen frekuentziarik altuenak II hatzek jasotzen ditu, bai gizonetan eta bai emakumeetan ere; baxuenak, ostera, V hatzamarrean gertatzen dira gizonetan, eta IVean emakumeetan. Ez dago bi eskuen arteko desberdintasun nabaririk.

Aletxa erradialen frekuentzia altuenak II hatzean ditugu, esku eta sexu bietarako (nahiz eta emakumeen eskuinerakoa besteak bezain altua ez izan). Beste hatzamarretan oso baxuak izaten dira, gizonezkoetan batez ere.

Aletxa ulnarren aitzasunik altuenak V hatzean aurkituak dira; baxuenak, ordea, II hatzamarrean. Esku eta sexu bietarako gertatzen da fenomeno hori.

Txirimolen frekuentziarik altuenak, esku bietarako, I eta IV hatzamarrek jasotzen dituzte gizonetan, eta I eta II emakumetan. Frekuentziarik baxuenak, berriz, V hatzean ditugu sexu eta esku bietarako.

Irudia	I		II		III		IV		V	
	esk.	ezk.	esk.	ezk.	esk.	ezk.	esk.	ezk.	esk.	ezk.
A	3,30	4,40	12,09	17,59	6,59	9,89	3,30	3,30	0,00	2,20
Lr	0,00	0,00	27,47	26,37	0,00	0,00	2,20	3,30	0,00	0,00
Lu	56,04	65,93	34,07	30,77	75,83	73,63	54,94	60,44	83,52	83,52
W	40,66	29,67	26,37	25,27	17,58	16,48	39,56	32,96	16,48	14,28

1. TAULA: Gizonen irudi digitalen maiztasunak, hatz bakoitzean (Baztan)

Irudia	I		II		III		IV		V	
	esk.	ezk.	esk.	ezk.	esk.	ezk.	esk.	ezk.	esk.	ezk.
A	3,03	3,03	9,09	18,18	7,57	6,06	0,00	1,51	0,00	3,03
Lr	0,00	0,00	7,58	22,73	3,03	4,55	1,51	1,51	0,00	0,00
Lu	66,67	66,67	46,97	31,82	83,34	74,24	72,73	75,76	100,00	92,43
W	30,30	30,30	36,36	27,27	6,06	15,15	25,76	21,22	0,00	4,54

2. TAULA: Emakumeen irudi digitalen maiztasunak, hatz bakoitzean (Baztan)

BESTE POPULAZIOEKIKO KONPARAKETA

Konparaketarako harturiko populazioak ondoko hauexek izan dira: Erronkari (ARRIETA et al., prestatzear), Aran harana (gizonak soilik) (PONS, 1966), Gipuzkoa (emakumeak soilik) (MEXIA, 1976), Tierra de Campos (MARTIN, 1982), Alcarria (PORTABALES, 1983), Asturias (GOMEZ, 1978). Populazio hauetarako irudien frekuentziak 3. eta 4.

tauleetan erakutsi dira, hamar hatzak bateraturik, gizon eta emakumeei dagozkienez.

Oro har, irudi digitalen frekuentzi banaketak parekoak dira aipatutako populazioetan: maiztasunik altuenak, aletxa ulnarretan gertatu dira; txirimolek frekuentzia ertainak jaso dituzte; aletxa erradialak, ordea, oso maiztasun baxuz agertzen dira.

POPULAZIOA	N	A	Lr	Lu	W
T. de Campos	417	3,95	4,17	60,84	31,03
Alcarria	339	5,13	4,84	60,56	29,44
BAZTAN	91	5,22	6,00	62,50	26,22
Erronkari	57	5,84	4,60	67,79	21,77
Asturias	114	8,10	4,31	58,60	28,94
Aran	103	8,50	6,00	60,00	25,50

3. TAULA: Gizonetako populazio batzuren irudi digitalen maiztasun totalak (N = laginaren tamainua).

POPULAZIOA	N	A	Lr	Lu	W
BAZTAN	66	4,28	4,12	71,71	19,88
T. de Campos	416	6,06	3,73	61,70	28,47
Erronkari	61	7,17	4,84	64,44	23,58
Asturias	250	7,76	3,20	61,84	27,20
Alcarria	314	8,28	3,47	64,08	24,10
Gipuzkoa	157	10,10	4,50	61,20	24,20

4. TAULA: Emakumetako populazio batzuren irudi digitalen maiztasun totalak (N = laginaren tamainua).

Gure laginaren emakumeei buruz zera esan daiteke: beraiek izan dira txirimola eta arkuen frekuentziarik altuenak, eta aletxa ulnarren baxuena jaso dituztenak, beste populazioenekin ezin parekaturik. Aletxa erradialen frekuentzia ertaina izan da. Aztertutako Baztango gizonak, arkuen eta aletxa ulnarren frekuentzia ertainak eduki dituzte beste populazioenekin konparatuta; beste alde-tatik, aletxa erradialen frekuen-

tziarik altuena jaso dute Aran haranekoekin batera; baztandarren txirimolen maiztasuna nahiko baxua izan da, arandarrena soilik izan baita baxuagoa. Hau dela eta, Aran eta Baztango gizonen arteko antzekotasun genetikoaz pentsa liteke. Dena dela ere, berau benetako ala faltsutzat hartzeko, askoz ere analisi (dermatoglifiko eta bestelakoak) konpletuagoak burutu beharko dira.

BIBLIOGRAFIA

CUMMINS, H. & MIDLO, C.; "Finger prints, palms and soles"; Dover publications, New York 1961.

FRIEDLAENDER, J.S.; "Patterns of human variation. The demography, genetics and phenetics of Bougainville islanders"; Harvard University Press, Cambridge 1975.

FROEHLICH, J.W. & GILES, E.; *Am. J. phys. Anthropol.*, 54,93-106 (1981).

GOMEZ, P.; "Estudio dermopapilar de una población de asturianos"; Argitaragabea 1978; VILLADANGOS-ek (1980) aipatua.

JANTZ, R.L. & CHOPRA, V.P.; *Am. J. Phys. Anthropol.*, 60,61-67 (1983)

MARTIN, J.; "Estudio dermatoglífico de los habitantes de Tierra de Campos" (Tesia); Universidad Autónoma de Madrid, Madrid 1982.

MEXIA, F.; *Munibe*, 4,305-332 (1976).

NEWMAN, M.T.; *Am. J. Phys. Anthropol.*, 64, 29-44 (1960).

PONS, J.; *Rev. Fac. Ciencias (Univ. Oviedo)*, 1, (7), 31-38 (1966).

PORTABALES, M.D.; *Bol. Soc. Esp. Antrop. Biol.*, 4,41-50 (1983).

VILLADANGOS, J.M.; *Bol. Cienc. Nat. (I.D.E.A.)*, 25,3-40 (1980).